



PONENTZIA

DONOSTIAKO UDALAK DUEN HERRI-PARTAIDETZA EREDUA

Juan Karlos Izagirre, Donostiako Alkatea

EZ GARA HUTSETIK HASI

Donostiako Udala eta haren Gobernuak ez dira hutsetik hasi herritarren partaidetzarako politikak martxan jartzean.

Udal Gobernuak osatzen dugun ordezkariok ez gara hutsetik hasi, herri mugimenduan ibiliak garelako, hainbat arlotan lanean: gazterian, politikan, auzogintzan, ikasle mugimenduan, giza eskubideak edo lan harremanen eremuan. Gizarte sare zabal eta anitz horren partaide izan gara, hemen *Herrigintza* deitzen duguna eta Euskal Herriaren gizarte kapital garrantzitsua den eraikuntza lan horretan aritu gara. Hori horrela, Udaletik partaidetza politikak lantzeko orduan, aipatutako gizarte gaiekiko kezka, sentimendu kolektiboa eta komunitatearen aldeko lana izan ditugu abiapuntu.

Era berean, Donostiako Udalak hainbat urte zeramatzan alor honetan lanean eta berrikuntzak egiten, lantalde tekniko eta aditu batekin, araubide batekin -2007ko Herritarren Partaidetzarako Arau Organikoa- eta esperientzia luze eta zabal batekin.

Testuinguru sozioekonomiko eta politiko zehatz batean bizi gara

Kolektibo eta eragile askoren iritziz (herritarrak, ikertzaileak, eragile politikoak, gizarte eragileak...), demokraziaren gaur egungo ordezkariak sistema ez da nahikoa herritarren eskubide politikoak gauzatzeko, eta Udal Gobernu hau iritzi berekoa da.

Gabezia horren ondorioz, herritarren eta botere publikoen arteko harremanetan, erakundeak zerbitzu emaile edo kudeatzaile bihurtu dira; herritarrak, aldiz, zerbitzu horien kontsumitzaile edo erabiltzaile huts. Azken horiek ez dira eskubide politikoak dituzten subjektutzat hartzen, eta ez dute erabakitzeko gaitasunik eguneroko bizitzan ezartzen zaizkien politiketan. Euskal Herrian, gainera, guztiok nozitu dugun gatazka erantsi behar zaio horri, zeinaren ondorioetako bat herritarren ordezkariaren zati bat hamarkada batez erakundeetatik kanpo uztea izan den.

Horri guztiari krisi sozioekonomiko larria gehitu behar zaio, beste era bateko politikak behar dituenak, ekimen publiko berriak eta gaitasuna eta ikuspegi zabala eskatzen dizkiena administrazioei eskubide sozialak babestu eta desberdintasunei aurre egiteko.

Gure iritziz, egoera honek egin duen kalte handienetakoa hau da: herritarren artean politikarien eta instituzioen eginkizunarekiko sumatzen den aldentzea gero eta handiagoa dela. Horrek kolokan jartzen du ordezkariak sistema. Bestetik, baina, egia da ere gero eta handiagoa dela herritarrek lan politiko-instituzionalean eragile aktibo gisa parte hartzeko duten nahia, erabaki publikoetan subjektu politiko gisa hartuak izateko borondatea.



NOLA BALORATZEN DUGUN HASITAKO IBILBIDEA

Horiek horrela, gobernu lanari ekin genionean, herritarren partaidetzarako bide berriak zabaltzea eta dibertsifikatzea erabaki genuen, helburu bikoitz batekin: errealitate hori iraultzea eta, ikuspegi estrategiko batetik, partaidetza politikak Udalean eta hirian finkatu eta iraunaraztea. Beraz, bi urte hauetan, gogoeta egin eta hainbat lan ildo jarri ditugu abian:

Lankidetzaren gizarte-sarearekin

Hasteko, kontuan izanik erakunde publikoek eragile eta bideratzaile gisa duten eginkizuna, gure ekarpena egin nahi izan diogu gizarte sare autonomo, kritiko, kohesionatu, sortzaile eta inplikatu baten eraikuntzari, hainbat eratako baliabideak eskainiz: besteak beste, lokalak, diru-laguntzak eta formazio, komunikazio eta informazio baliabideak. Baina, gizarte mugimenduen autonomia errespetatu beti.

Herri-partaidetzarako proiektu gehiago eta hobeak

Bestetik, saiatu gara prozesu parte-hartzaileekin lotuta dagoen herritarren partaidetza bultzatzen, kantitateari nahiz haien eragina hobetzeari dagokienez, udalerrietan gehien landu diren esperientziak izanik. Eraikuntza kolektiboa bultzatu dugu proiektu publikoetan, udal ekimena auzoetara hurbilduz (hau da, herritarren arteko bizikidetzaren esparru naturalera) eta auzoen presentzia handituz jarduera instituzionalean. Gainera, herritarren beharrak eta proposamenak jaso ditugu, udal ekimenei buruzko informazioa partekatuz edo lurraldeari lotutako herritar sare antolatuekiko harreman-eredua definituz.

Partaidetza organo egonkorren berrantolaketa

Era berean, partaidetza gune egonkorak (hala nola, Aholku Kontseiluak) berrorientatu eta berraktibatze lanari ekin diogu, ahalak eta gaitasuna (ahalduntzea) emateko gune horiei eta horietan parte hartzen duten elkarte eta mugimenduei.

Udal antolakuntzaren transbertsalitatea partaidetzarako

Argi izan dugu beti zer esan nahi duen guretzat erakundeetan eta herritarren arteko botere-harremanak aldatzeak: hots, herritarren partaidetzarako bideak zabaltzearekin batera, administrazioaren funtzionamendua helburu horietara egokitu eta moldatze beharra zegoela. Izan ere, nekez indartuko ditugu eta iraunaraziko ditugu erakundeetan jarduteko modu berriak Udaleko kide guztion artean eraikitzen ez baditugu, Udaleko ordezkari politikoek eta langile publikoek modu berri horiek barneratzen eta lantzen ez badituzte.

Horregatik, sendotu egin dugu herritarren partaidetzaren transbertsalitatea politika publikoetan, beste lan modu batzuk ezarrita udal arlo guztietan, proiektuak partekatze eta herritarren proposamenak denon artean baloratu eta lantzeko. Partaidetzarako erreferente teknikoak izendatu ditugu, departamentu guztietan, haien izaera gorabehera, eta saiatu gara lurralde-partaidetza eta Aholku Kontseiluak udal departamentu bakoitzaren eginkizunarekin lotzen.

Gardentasuna eta Gobernu Ona

Hiria gobernatzeko aukeratu gaituzten ordezkariok gardentasunez lan egin behar dugu. Hortaz, gardentasun horri begira, saiatu gara informazioa herritarren eskura erraz eta bizkor jarriko duten bideak ezartzen, erakunde publikoen jarduera kontrolatzeko eta fiskalizatzeko duten eskubidea erabil dezaten. Horrela, udal gobernuak *Gobernu onaren kodea* onartu eta hainbat konpromiso publiko hartu ditu.



Konexioa eta ikaskidetz

Partaidetzarako ikuspegi eta gune berri horiek guztiak ez lirateke posible izango Donostiako herritarren kontraste eta ikaskidetzarik gabe, udal teknikarien esperientziarik gabe eta hainbat sare eta forotan parte hartu gabe (hala nola, Gipuzkoako Aldundiak bultzatutako *Herritarrekin* sarean). Izan ere, garapen kualitatibo bat da, ikuspegi kolektibo batetik abiatzen diren partaidetza kultura politiko berriak eraiki nahi dituen.

GURE PARTAIDETZA-EREDUA ERAIKITZEN ARI GARA

Bi urte hauetako esperientzia labur bezain biziak erakutsi digunez, helburua erakundeetatik gizarte- eta politika-aldaketaren alde lan egitea bada (zehazkiago, partaidetza politika eraldatzaileen alde –hitzaren zentzu zabalenean–), luzera begira lan eginez gero soilik beteko dugu helburu hori, bidea galtzea eragotziko duen eta partaidetza gure kultura politikoan finkatzea ahalbidetuko duen ekimen estrategiko baten bitartez.

Horregatik, *Herritarren Partaidetzarako Eredu* bat sortu dugu, lehen aipatu ditudan esperientzia kolektiboen bitartez, legealdian landu ditugun helburu, printzipio eta balioak bildu eta kohesionatzen dituen. Horretarako, gogoeta bide bat zabaldu dugu eredu instituzionalaren inguruan, ardaztat harturik herritarren partaidetza eta mahai gainean jarri dugu sistema instituzionalaren eta partaidetza sistemaren oinarrian egon behar duten lan politikorako forma guztiak bateratzeko beharra.

Printzipioak eta balioak

Donostian, denon artean eraikitzen ari garen ikuspegi berria hainbat printzipiotan oinarritzen da: eskubide politikoen aitortza, aniztasunerako eskubidea eta pertsonaren errekonozimendua eragile aditu gisa. Horrekin batera, inklusioa, konfiantza, hurbiltasuna, sormena eta enpatia bezalako balioak ere jasotzen ditu. Gure partaidetza eredu ez da imaginario batetik abiatzen, donostiarren urteetako eskari subjektibo eta esplizituetatik baizik eta eskari horiei erantzun beharrean gaude, kargu publiko garen aldetik.

Politikarako jardunaren hiru ardatzak

Gure ustez, herritarren eskaerei erantzuna emateko, hiru dira eredu instituzionalaren oinarrian egon behar duten jardun politikorako ardatzak: ordezkatzalea, ardatz dialogikoa edo parte-hartzailea, eta partaidetza zuzena. Hiru esparru erabat desberdinak dira, baina beharrezkoak eta elkarren osagarriak aldi berean.

Lehenik, **ardatz ordezkatzalea**: botere politikoa herri-hautetsien bitartez gauzatzen da eta gai izan behar dute hautetsi horiek erakundeetan duten ordezkartzatik interes orokorra defendatzeko, guztion eskubide eta aukeren kalterako izan daitezkeen interes partzial edo partikularrei aurre eginez.

Ordezkaritza sistemak informazio, kontrol eta fiskalizazio tresna zorrotzak ipini behar ditu herritarren esku eta erabateko gardentasunez jokatu behar du hautetsien eta administrazioaren jardunean. Alde horretatik, hainbat neurri hartu ditugu: abian jarri ditugu gardentasun politikak; *Gobernu onaren kodea* landu eta argitaratu dugu; informazio bilerak jarri ditugu martxan auzoetan; bultzada eman diegu Aholku Kontseiluei, edo-eta ordezkartza organoen ateak zabaltzen saiatu gara donostiarrei.



Bigarrenik, **ardatz dialogiko** edo parte-hartzailea: administrazioaren eta gizarte eragileen arteko lankidetzan datza, sormenetik eta desberdinen arteko elkarlanetik irtenbideak bilatzeko. Izan ere, lankidetzaz horretan oinarritzen dira Udalak eta herritarrek abian jarri dituzten partaidetza prozesuak (lurralde-prozesuak nahiz sektorialak).

Hirugarrenik, bereziki nabarmendu nahi nuke ere, *jardunaldi* hauen muina den aldetik, herritarren **partaidetza zuzenaren ardatza**. Herri ekimenak eta herri kontsultak bezalako tresnen bidez, Donostian ere beharrezkoa dugun ekimen unibertsala ahalbidetzeko, ezinezkoa aurreko bi ereduetan: ordezkariak eredu dialogikoan. Bitartekaririk gabeko herritarren partaidetzaz ari naiz, zeinaren bidez herritarrek politika publikoetan eragin eta erabaki ahal izango duten, boto edo sufragio individual eta sekretuaren bitartez, politika edo proiektu jakin baten inguruan.

PARTAIDETZA ZUZENAREN ALDEKO APUSTUA

Partaidetza zuzenean sakontzeko apustua egiten dugu, kudeaketa politikorako baliabide gisa. Dena dela, borondate politiko horrek kontraste lan bat eskatzen du herritarrekin eta gizarte eragileekin, bere egokitasuna eta garapena definitzeko. Hain zuzen, horretarako elkartu gara *jardunaldi* hauetan.

Herritarren partaidetza politikoan sakontzen badugu, politikaren berariazko zentzua sendotzen ari garela uste dugu, jardun politikoa duintzen eta haren eraikuntza sozializatzen, aukera eskainiz pertsona kopuru handi bati erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko. Hori dela-eta, uste dugu jardun politikoaren ardatz honek denon arteko gogoetatik abiatu behar duela, demokrazia zuzenak erantzunkidetasuna eskatzen duelako erabakiak hartzeko unean, gizartearen apatiari aurre eginez eta haren kultura politikoa sendotuz.

Jakin badakigu esperientzia handirik ez dugun esparrua dela, egia bada ere herri kontsultak protagonismo gero eta handiagoa hartuz joan direla azkenaldian Euskal Herriko testuinguru politiko-instituzionalean. Formula, helburu eta testuinguru oso desberdinekin, hainbat ekimen jarri dira abian hainbat gairen inguruan: hiri hondakinak, zezenketak, hirigintza proiektuak edo, berriki eginiko herri kontsulta bat aipatzearren, autobide elektrikoari buruzkoa.

Donostian era honetako ekimen gutxi izan ditugu eta egin den apurra (hala nola, Katalunia Plazaren kontsulta) Udalak berak bultzatutakoa izan da. Bestetik, egia da ere alor juridikoan oso araudi mugatua dugula, oso gutxi garatua eta ez duela ezartzen nola jardun partaidetza zuzeneko mekanismoen exekuzioan. Aurrekoari udal politiken eta udal-eztabaiden funtzionamendua gehitu behar zaio, guztiz oztopatzen duena, erraztu ordez, herritarren partaidetza zuzen eta egokia.

Bereziki kezkatzen gaituen beste afera bat jatorri anitzeko pertsonen eskubide politikoak dira, zailtasun handiak izan baititzaketelako botoa emateko partaidetza zuzeneko prozesuetan.



Beraz, esandako guztia kontuan izanik: **nola egin aurre erronka honi?**

Gobernu honek partaidetza zuzena bultzatzeko borondate irmoa du: partaidetza zuzenaren alde gaude. Borondate hori adierazteaz batera, geure gain hartzen dugu beharrezko berme guztiak babesteko konpromisoa, herritarren eskubide guztiak babestekoa: eztabaida publikorako eskubidea, aukera guztiei buruzko informazio objektiborako eskubidea, gardentasunerako eskubidea eta kanpo-kontrolerako eskubidea. Labur esanda, partaidetza zuzena bai, baina ez nolana: herritartasun politikoari dagozkion askatasun eta hautatzeko subiranotasun baldintzak errespetatuta.

Tresna berri hauek denon artean eraiki behar ditugu, haien definizioa ahalbidetuko duten argudioak ezagututa eta kontrastatuta. Uste dugu erronka honek partekatua izan behar duela eta aniztasunetik eta ikuspegi ireki batetik erantzun behar zaiola: alderdi politikoan, gizarte mugimenduen, administrazioan langileen eta oro har herritar guztien arteko elkarlanetik.

Ibilbide horretan, jardunaldi hauen antolakuntzaren bidez, Udalak bere gain hartu du ekimena, eta gune bat eskaini nahi izan du gogoetarako eta eztabaidarako. Espero dugu abiapuntu ona izatea herritarren partaidetza zuzenari buruzko eztabaida sortzeko eta gogoeta horretatik ateratako ondorioak gure hirian benetan ezartzeko.

Donostia, 2013ko urriak 4

Juan Karlos Izagirre Hortelano
DONOSTIAKO ALKATEA

